



GIPUZKOAKO PSIKOLOGIA ELKARGO OFIZIALAREN KODE DEONTOLOGIKOA

2022

HITZAURREA

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialaren funtsezko eginkizunetako bat da, bere Estatutuek ezartzen duten bezala, Psikologiaren lanbideko jarduna antolatzea bere forma eta espezialitate guztietan, bai zerbitzatzeko duen gizartearen mesedetan eta bai berezko dituen interes orokorretan.

Elkargo honek gure lanbidearen Kode Deontologikoa eguneratu beharra ikusten zuen. Kode hori 1987koa zen, eta, nahiz eta jatorrizko idazkerak hainbat aldaketa jaso dituen urte hauetan izandako lege-erreforma garrantzitsuenen ondorioz, jatorriz behar zituen gaur egungo errealitatearen arabera idazketa eta artikulak.

Idazketa berria bat dator Europan, estatuan, autonomia-erkidegoan eta Gipuzkoako lurralde historikoan indarrean dugun legegintza-errealitatearekin. Era berean, EFPAk (European Federation of Psychologists 'Associations) ezarritako jarraibideak eta lanbiderako dituen printzipio etikoak jasotzen ditu.

Era berean, gure jardura profesionalean gero eta hedatuago eta arruntago bihurtu den gaur egungo teknologia berrien (IKT) erabilera arautzea du xede, oraindik arautu gabe baitago.

Psikologiaren lanbideko jarduna antolatzean elkargoak duen funtzioa betetzeko eta babesteko xede horiei erantzuteko helburuz eta etengabe eguneratzeaz arduratzeko elkargo-konpromisoa harturik landu da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kode Deontologiko hau.

ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

Terminoak eta definizioak.

Erabiltzailea: zerbitzu psikologikoak jasotzen dituen pertsona edo pertsona-taldea. Pazientea izanda edo psikologiako zerbitzu profesionalak jasotzeko beste edozein modalitatetan ere aplikatzen da.

Bezeroa: erabiltzaile baten gaineko esku-hartze psikologiko profesionala eskatzen duen pertsona edo erakundea.

Psikologoa, edo psikologiako profesionala: psikologiako unibertsitate-tituluduna eta lanbidean jarduteko legezko gaitasuna duen pertsona.

Sozietate profesionalak: psikologiaren lanbidea beren jardueraren barruan duten sozietate edo elkarteak, nola jarduera eskusibo gisan, hala diziplina anitzekoak izanda.

Esku-hartzea, harremana edo jarduera profesionala: psikologoak pertsonen edo pertsona-taldeen gainean egiten duen edozein jarduera profesionali dagokio.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKTak): psikologiaren jardun profesionalean teknologiak erabiltzeari dagokio (bideokonferentzia, telebista, ordenagailuak, ikus-entzunezko sistemak, internet, plataforma teknologikoak, sare sozialak, etab.).

Etika eta Deontologia Profesionala: psikologiako profesionalak, kode honetan jasotakoaren arabera, nahitaez bete behar dituzten jokabide-printzipioen eta -arauen multzoa.

Irismena eta aplikazio-esparrua.

Psikologiaren jardun profesionala, bere giza eta gizarte-helburuaren barruan, pertsonarengan eta bere interrelazioetan ardaztuta dago, eta prozesu psikologikoetan eta giza portaeran aplikatzeko ezagutza zientifiko baliadun eta fidagarriaren garapenean oinarritzen da, testuinguru guztietan.

Ildo horretan, honako Kode honek arautzen du jardute hori bere edozein modalitatetan, Gipuzkoako lurralde historikoan; jardutea banakakoa, taldekakoa zein sozietate profesionalen bidezkoa dela ere.

I. IDAZPURUA: PRINTZIOPIO ETIKOAK

1. Printzipioa. Pertsonaren duintasuna, autonomia eta eskubideak

Psikologian dihardutenek pertsonaren duintasuna eta askatasuna eta giza eskubideen errespetuarekin bateragarriak diren oinarritzko balioak errespetatu eta sustatuko dituzte, baita haren autonomia, autodeterminazio-gaitasuna eta pertsona gisa dituen eskubideak ere; hori guztia, legeek ezarritakoaren arabera eta diskriminaziorik gabe.

2. Printzipioa. Konpetentzia profesionala

Psikologiako profesionalek ahaleginak egingo dituzte jardun profesionalean konpetentzia-maila handia bermatzeko eta mantentzeko. Beren konpetentzia partikularraren eta espezializazioaren mugak errekonozituko dituzte. Beren titulazio, prestakuntza eta/edo esperientziagatik hartarako behar bezala kualifikatuta dauden metodoak, teknikak eta lan-tresnak soilik eskaini eta erabiliko dituzte.

3. Printzipioa. Pribatutasuna, konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala

Psikologiako profesionalek –beren esku-hartzeetan– erabiltzaileen intimitatea pribatutasun-printzipioaren arabera errespetatuko dute, eta sekretu profesionala konfidentzialtasun-printzipioan funtsatuta betetzeko obligazioa izango dute. Psikologiaren jardun profesionala printzipio horiek gidatu beharko dute, baita datu pertsonalen babesari buruzko lege-xedapenek edota aplikatzeak diren beste lege batzuek ere.

4. Printzipioa. Erantzukizuna

Psikologiako profesionalek komunitate zientifikoan kontrastatutako ezagutza, metodoak eta lan-tresnak egokiro erabiliz jardungo dute, eta balizko hipotesi, ebidentzia edota esplikazio alternatiboak ezagutu beharko dituzte.

Ez dute kalterik eragingo, beren ekintzen erantzule izango dira, eta, ahal den neurrian, beren zerbitzuak gaizki erabiltzen ez direla ziurtatuko dute.

5. Printzipioa. Zintotasuna eta integritatea

Psikologiako profesionalen jarduna egiazaletasunean, zehaztasunean eta inpartzialtasunean oinarrituko da, eta uko egingo dio intrusismoa, faltsukeria, engainua edo gezurra dakarten egoera profesionaletan parte hartzeari. Era berean, debaluazioa, gutxiespena, abusuzko manipulazioa edo monopolio baztertzaila dakarten beste ekintza batzuk saihestuko dituzte.

Era berean, saihestu egingo dute beren rolagatiko eta/edo estatusagatiko, edota erabiltzaileen balizko ahultasunagatiko botere-abusu oro; baita norberaren edo besteren irabazi edo onurarako aprobetxamendu partikularra ere.

II. IDAZPURUA: ARAUEN GARAPENA

1. Atala. Printzipio orokorrak

1. Artikulua

Kode hau da lanbidearen jokabide etiko eta deontologikoaren araua, eta psikologian dihardutenek nahitaez bete behar dute. Jardun profesionalaren eremu eta modalitate guztietan aplikatu beharrekoa da, baita sozietate profesionaletan ere, beren lege-erregulazioaren arabera.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak bere estatutuen eta kode honetako printzipio eta artikuluen arabera baloratuko du jardun profesionala, diziplinari dagokionez.

2. Artikulua

Kode hau, jarduera profesionalaren antolamendu etikorako tresna den aldetik, legezketasun-printzipioaren arabera arautzen da, eta bertan emandako manuetako bat ere ezin da kontraesanean sartu indarrean dagoen legeriarekin.

3. Artikulua

Psikologian aritzen diren pertsonen jarduera profesionala konfidentzialtasun- eta pribatutasun-printzipioek arautzen dute, erabiltzaileekin legeriaren barruan ezartzen dituzten baldintzetan.

4. Artikulua

Psikologian diharduten pertsonak, beren lanbidean zilegi den moduan jardutean, buru egingo diote beren independentzia profesionalarekiko edozein motatako eragozpenak edo oztopoak jartzeari, kode honek identifikatzen dituen eskubide eta betebeharren esparruan.

5. Artikulua

Psikologiako profesionalek, beren zerbitzuak ematean, jarduera profesionalean inplikaturako pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatuko dituzte. Hori guztia, haiek dituzten edozein motatako desberdintasun indibidualak direnak direla ere.

Era berean, bezeroen eta erabiltzaileen nortasuna eta uste moralak eta erlijiosoak errespetatuko dituzte; baina, horrek ez du eragotziko –esku-hartzean zehar beharrezkoa denean– zalantzazkotzat jotzea.

6. Artikulua

Zerbitzuak ematean, psikologiako profesionalek ez dute inor diskriminatuko jatorriagatik, adinagatik, arrazagatik, generoagatik, sexu-aniztasunagatik, nazionalitateagatik, gizarte-klaseagatik edo beste edozein desberdintasunengatik.

7. Artikulua

Psikologian dihardutenek ez dute lagunduko pertsonen askatasunaren eta integritate fisiko eta/edo psikikoaren aurka egiten diren praktiketan.

Halaber, ez dute parte hartuko eta ez dute laguntza emango –inola ere ez– ikertzaile edo aholkulari gisan, edo edozein estalgile gisan, ezein prozedura krudel, anker edo

umiliagarritan.

8. Artikulua

Psikologiako profesionalek agintari eskudunei jakinarazi behar dizkiete beren lanbidean diharduten bitartean ezagututako giza eskubideen urraketak, tratu txarrak edo giltzapetze krudel, anker edo umiliagarriak.

9. Artikulua

Psikologian dihardutenak:

- a) Ez dute legearen aurkako maniobrarik edo erakartze-jarduketarik egingo, egoera jakin batzuetan (krisialdian, larrialdian, etab.) monopolio profesionala eragin ditzaketen kasuak eskusiboki beren esku uztea lortzeko.
- b) Ez dute baliatuko jardun profesionalak beren bezero eta erabiltzaileen gainean eman diezaiekeen botere- edo nagusitasun-egoera norberaren edo hirugarren pertsonen probetxu edo onurarako.
- c) Erakunde publiko batean ematen dituzten zerbitzuak ez dituzte baliatuko, halaber, kasuak beren jardunbide pribatura edo beste profesional batzuenetara legez kontra bideratzeko.

10. Artikulua

Psikologiako profesionalek ez diete beren izenik edo sinadurarik lagako psikologiako jardunean behar den titulaziorik eta prestakuntzarik gabe legez kanpo aritzen diren pertsonen, egin ditzaketen arau-hausteak edo delituak alde batera utzi gabe. Era berean, ez dituzte beren titulazioarekin estaliko jardura alferrekoak edo engainagarriak, eta ez dute komunitate zientifikoak abalatu gabeko metodorik erabiliko.

Gainera, ezagutzen dituzten intrusismo-kasuak salatuko dituzte.

11. Artikulua

Interes pertsonal edo instituzional kontrajarriak topatzen dituztenean, psikologiako profesionalek inpartzialtasunik handienarekin bete beharko dute beren lan-jarduna.

12. Artikulua

Psikologiako profesionalak errekonozitu beharko du dilema edo arazo etikoak gerta daitezkeela, eta bere erantzukizuna dela horiek argitzea, elkargokideei eta/edo Elkargoko Deontologia Batzordeari kontsulta eginez, eta, beharrezkoa bada, inplikaturako pertsonen eta erakundeen informazioa emanez.

2. Atala. Konpetentzia profesionalari eta beste profesional batzuekiko harremanari buruzkoa

13. Artikulua

Psikologiako profesionalaren eskubideak eta betebeharrak independentzia eta autonomia profesionalaren printzipiotik abiatuta eratzeko dira, erakunde jakin batean goragoko beste profesional eta agintariekiko duen posizio hierarkikoa edozein dela ere.

14. Artikulua

Psikologian aritzen direnen jardura profesionala beren zereginetarako gaitasunean eta kualifikazioan oinarritzen da; izan ere, beren lanaren parte da gaitasun profesionala eguneratzeko etengabeko ahalegina, horrek emango baitie behar duten prestakuntza eta espezializazioa lanerako kontzeptu, metodo, lan-tresna, teknika eta prozedura baliiodunen erabileran.

Ilido beretik, beren konpetentziaren mugak eta tekniken norainokoa errekonozitu behar dituzte.

15. Artikulua

Teoria-, eskola- eta metodo-aniztasun legitimoaren kalterik gabe, psikologiako profesionalak ez dute erabiliko indarrean dagoen ezagutza zientifikoaren mugen barruan behar bezala kontrastatuta ez dagoen baliabide edo prozedurarik. Ikerketen kasuan, oraindik kontrastatu gabeko teknika edo lan-tresna berriak probatzeko, hala jakinaraziko die bere bezeroei eta erabiltzaileei erabili baino lehen, eta alde zuzenetik jaso beharko du baimen informatua idatziz.

16. Artikulua

Esku-hartzean erabilitako mota oroko material hertsiki psikologikoa Psikologian jarduten duten pertsonak bakarrik erabili dezakete, eta haiek kudeatuko dute, edo, hala badagokio, bermatuko dute behar bezala zaintzen direla, eta ez zaizkiela emango gaitasunik ez duten eta/edo lanbidearekin zerikusirik ez duten beste pertsona batzuei, legeko obligazioa denean salbu.

17. Artikulua

Esku-hartze psikologiko jakin batek beste diziplina batzuekin harreman estuak izatea dakarrenean, psikologian dihardutenek konexio egokiak ziurtatzen ahaleginduko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera bezeroak edo erabiltzaileak aurrez behar bezala baimendurik.

18. Artikulua

Psikologiako jarduna, praktikan eta jendaurrean aurkeztean, urrundu egin beharko da bere oinarri zientifikotik kanpoko prozedura eta praktiketatik.

19. Artikulua

Psikologiako jarduna oinarritzen da psikologiako profesionalen eta beste lanbide batzuetakoen arteko elkarrekiko errespetuan eta eskubidean.

Egokitzat jo lezaketen kritika zientifikoaren kalterik gabe, psikologiako profesionalak ez dituzte lankideak edo beste profesional batzuk gutxietsiko, eta komunitate zientifikoak eta profesionalak aitortutako eskolak eta esku-hartze motak errespetatuko dituzte.

20. Artikulua

Psikologiako profesionalak nahitaez jakinarazi behar diete Elkargoko gobernu-organoei ekintza ez-etiko bat edo urraketa deontologiko bat nabarmen edo ageriki gertatu izana, baldin eta horren berri badute.

3. Atala. Esku-hartzeari buruzkoa

21. Artikulua

Pertsona, talde, erakunde edo komunitateen gaineko esku-hartzeaz arduratzean, psikologian dihardutenek informazio egokia emango dute –eta ahal den neurrian, idatziz– ezarritako harremanaren funtsezko ezaugarriei buruz, jorratzen ari diren arazoei buruz, proposatzen diren helburuei buruz eta erabilitako metodoari buruz.

22. Artikulua

Psikologian diharduten pertsonak uko egin behar diote beren zerbitzuak emateari ziurki dakitenean gaizki erabil daitezkeela edo pertsona, talde, erakunde eta komunitateen interes legitimoen aurka erabil daitezkeela.

Nolanahi ere, ez dute informaziorik emango pertsona, talde, erakunde edo komunitate baten ezaugarri pertsonal eta/edo psikologikoei buruz, aurrez ebaluatu eta egiaztatu gabe.

23. Artikulua

Esku-hartzea hasi aurretik, psikologiako profesionalak erabiltzailearen baimen informatua eskatuko dute. Adingabeen edo legez ezgaitutako pertsonen kasuan, baimenak legez ezarritako ordezkari bidez bilduko dituzte, gurasoengandik edo legezko tutorengandik, baita adingabearena berarena ere, legeak hala zehazten duenean.

Nolanahi ere, pertsonen manipulazioa saihestuko da eta pertsonen garapena eta autonomia lortzera joko da, betiere baimen hori edozein unetan baliogabetzeko eskubidea errespetatuz.

24. Artikulua

Psikologiako profesionalari esku-hartzea hirugarren pertsonak eskatzen diotenean (epaileek, irakaskuntzako profesionalak, gurasoek, tutoreek, erakunde publikoek, enplegu-emailek, etab.), hark erabiltzailearen baimen informatua eskatuko du (adingabeen kasuan, gurasoena edo legezko tutoreena) esku-hartzearen eta txostena igortzearen gainean, bai eta baimen hori ez emateak izan ditzakeen ondorioen gainean ere.

Txostena igorritz gero, bertan adieraziko du nor den hartzailea eta zein txostenaren helburua eta edukia, betiere horrek kalte larririk eragiten ez badu.

Pertsona bat judizialki manatutako ebaluazio edo esku-hartze batean parte hartzearen aurka jartzen bada, haren ardura duen psikologiako profesionalak horren berri eman beharko dio instantzia judizialari.

25. Artikulua

Psikologian diharduten pertsonak erabiltzailearen berariazko baimena beharko dute aldeaz aurretik, ekintza profesionalerako beharrezkoak ez diren hirugarren pertsonak –hala nola praktiketako ikasleak edo trebatze-bidean diren profesionalak– bertan egon ahal izateko, baita ahotsa edo irudiak grabatzeko ere.

26. Artikulua

Esku-hartzea IKTen bidez egiten denean, psikologiako profesionalak halakotzat identifikatu beharko dute beren burua; eta, hala eskatzen bazaie, beren kompetentzia

profesionala egiaztatu beharko dute. Era berean, ziurtatu egin beharko dute erabiltzailea behar bezala identifikatzen dutela IKTen bidezko esku-hartzeak irauten duen bitartean.

Nolanahi ere, IKTen bidezko esku-hartzeak ez du salbuesten indarrean dagoen legeria eta Kode Deontologiko honen printzipio etikoak betetzetik.

27. Artikulua

IKTen bidezko esku-hartze orok –nolanahi dela– jardun profesional ona bermatuko duten lan-tresna eta baliabide teknologiko egokiak erabiltzea exijitzen du. Nolanahi dela ere, psikologiako profesionalak teknika horiek erabiltzeko beharrezko prestakuntza eta gaikuntza izan behar ditu, eta behar bezala bereizi behar du zein kasu ez diren egokiak praktika profesional mota horretarako.

Psikologiako profesionalak ingurune horretan (IKTetan) aritzeko fidagarritasuna eta baliozkotasuna frogaturik duten ebaluazio-tresnak eta -teknikak bakarrik aplikatuko dituzte.

28. Artikulua

Psikologiako profesionalak esku-hartze batean zehar lortutako informazioa biltzean eta erabiltzean konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala errespetatzen direla bermatuko dute.

29. Artikulua

Psikologiako profesionalak amaitutzat eman behar dute beren esku-hartzea, eta ez dute alferrik luzatuko proposatutako helburuak lortu badira.

Bestalde, arrazoizko denbora igaro ondoren uste badute proposatutako helburuak ez direla lortuko eskura dituzten bitartekoeekin, metodoekin, teknikekin edo baliabideekin, bezeroari, erabiltzaileari, taldeari, erakundeari edo komunitateari adierazi beharko diote zein beste profesionalak (psikologiakoak edo beste lanbide batzuetakoak) har dezaketen esku-hartzearen ardura.

30. Artikulua

Edozein pertsonak du eskubidea psikologiako profesionala askatasunez aukeratzeko, profesionala aldatzeko eta esku-hartzea uzteko.

Psikologiako profesionalak uko egin ahal izango diote beren esku-hartzea beste profesional baten esku-hartzearekin batera egiteari, erabiltzailearentzat kaltegarria edo alferrikakoa izan daitekeenean.

Aldaketa gertatuz gero, ez dute psikologiako beste profesional batek lehenago hasitako esku-hartzearen erdeinurik egingo.

31. Artikulua

Era berean, ez dute onartuko beren eginkizuna eta funtzioa nahasgarriak, anbiguoak edo bateraezinak gerta daitezkeen egoera nahasietan egoterik; eta, besteak beste, lanbide-jardun berean peritu eta terapeuta gisa esku hartzea saihestuko da.

32. Artikulua

Psikologian diharduten pertsonak tentuz eta zuhurtziaz jokatu dute beren esku-hartze guztietan –eta, bereziki, idatzizko txostenetan–, ez dute erabiliko behar bezain zorrotza ez den

terminorik, ez termino debaluatzailerik; ezta balio-iritzirik ere.

33. Artikulua

Psikologiako profesionalek arreta berezia jarri behar dute itxaropen faltsurik ez sortzeko eta eskueran ez duten emaitzarik beren esku-hartzearen bidez ez bermatzeko.

4. Atala. Ikerketari eta irakaskuntzari buruzkoa

34. Artikulua

Ikerketa psikologikoa pertsonen duintasuna, sinesmenak, intimitatea eta/edo lotsa errespetatuz egingo da beti.

Nolanahi ere, ikerketa hasi baino lehen, berariaz eskatu beharko da ikerketa horretan parte hartzen duten pertsonen baimen informatua.

35. Artikulua

Psikologian diharduten pertsonak zientziaren eta lanbidearen aurrerapenean laguntzen saiatuko dira (beren diziplina ikertuz, lan zientifikoaren arauak eta eskakizunak betez, beren jakintza ikasleei, profesionalei eta abarri jakinaraziz).

36. Artikulua

Psikologiako profesionalek, ikerketa orotan:

a) Parte-hartzaileen baimen esplizitua eskatu beharko dute; edo, adingabeen edo ezgaituen kasuan, haien gurasoen edo tutoreen baimen esplizitua.

b) Ezezkoa emango diote parte-hartzaileei kalte iraunkorrak, atzeraezinak edo saihegarriak eragiteari.

37. Artikulua

Ikerketa psikologikoak eragozpen iragankorren bat sortzen duenean –hala nola deskarga elektrikoak edo zentzumen-gabetzea–, psikologiako profesionalek ziurtatu egin beharko dute saio esperimentaletan parte hartzen dutenek askatasunez eta inolako kanpo-konstrikziorik gabe parte hartuko dutela, eta aldez aurretik efektu horiei buruzko informazioa eman eta dagokion baimen idatzia eskatuko dute.

Hala eta guztiz, parte-hartzaileek eta/edo haien legezko ordezkariak edozein unetan erabaki ahal izango dute esperimentuan parte hartzea etetea.

38. Artikulua

Ikerketak etsipenean eta/edo engainuan oinarritutako teknikak erabiltzea eskatzen duenean, psikologian jarduten duten pertsonak ziurtatu egin beharko dute parte-hartzaileengan ez dela ondorio iraunkorrik izango, eta, nolanahi ere, saioa edo ikerketa amaitzean teknika horien erabileraren izaera eta premia esperimentalak azalduko diete parte-hartzaileei.

39. Artikulua

Animaliekin esperimentatzean, saihestu egingo dira –edo minimora txikiagotu– balio zientifiko eta gizatiar aintzatetsia duten helburuetarako ezinbestekoak eta justifikagarriak ez

diren sufrimenduak, kalteak eta eragozpenak.

5. Atala. Informazioa lortzeari, erabiltzeari, pribatutasunari eta konfidentzialtasunari buruzkoa. Txosten psikologikoa.

40. Artikulua

Psikologiako profesionalek bezeroaren eta erabiltzailearen intimitatea errespetatuko dute. Eskatu zaizkien eginkizunak betetzeko ezinbestekoa den informazioa baino ez dute bilduko, betiere alde zurretiko baimena eskuratu eta gero.

Nolanahi dela ere, ez dute inolako eraginik onartuko txostenen edukiak edo ondorioak lantzean.

41. Artikulua

Lanbidean aritzean jasotzen duten informazio guztia (dela bezeroek edo erabiltzaileek espresuki egindako ahozko adierazpenetan, dela datu psikometrikoetan edo beste behaketa profesional batzuen bidez), konfidentzialtasuneko eta sekretu profesionaleko betebeharraren mende dago; betebeharrak horretatik indarreko lege-esparruak edota bezeroen edo erabiltzaileen berriazko baimen aske eta informatuak soilik salbuetsi ahal izango lituzke.

Hala badagokio, beren lankideek ere sekretu profesional hori betetzen dutela ziurtatzeaz arduratuko dira.

42. Artikulua

Psikologiako profesional batek esku-hartze bat gauzatzen duenean erabiltzaile batek eskatuta, ezin izango du hirugarren pertsonekin partekatu esku-hartzean zehar lortzen duen informazioa, salbu eta erabiltzaileak alde zurretik berriazko baimena eman badio, edo legeek ezarritako mugen barruan zilegi bada.

43. Artikulua

Psikologian jarduten duten pertsonak tentu eta arreta berezia jarriko dute txosten psikologikoak prestatzean eta horien helburua eta edukia lantzean; eta argiak, zehatzak, zorrotzak eta ulergarriak izan beharko dira hartzaileentzat, garrantzizkoak eta iraunkorrak direlako.

Era berean, adierazita azaldu behar dute –igortzen duen profesionalaren datuez gain–, txostenaren irismena eta mugak, profesional horrek edukiei buruz duen ziurtasun-maila, txostena egungoa edo aldi baterakoa den, eta zer teknikak erabili diren hura lantzeko.

44. Artikulua

Halaber, psikologiako profesionalek, beren txostenetan, ez dute iritzirik, ondoriorik edo iruzkinik azalduko ebaluatuak izan ez diren edo baimenik eman ez duten pertsonen buruz.

45. Artikulua

Instituzioek, edo, oro har, erakundeek eskatuta egiten diren txosten psikologikoek konfidentzialtasun-betebeharrak eta -eskubide berbera izango dute, eta behartuta egongo dira –bai psikologian dihardutenak, bai instantzia eskatzailea bera– eskatu zireneko esparrutik kanpo ez zabaltzera, datuen babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko, eta legezko

betebeharrik izan ezean.

Beste instantzia batzuek ebaluatutako pertsonen informazioa edo zerrendak eskatzen badizkiete, eta horietan diagnostikoak edo ebaluazioaren datuak jaso behar badira, izena eta identifikazio-datuak kenduta egin beharko dira, baldin eta behar-beharrezkoak ez badira.

46. Artikulua

Psikologian diharduten pertsonak jakinarazi egin beharko diete beren zerbitzuak eskatzen dituztenei zer konfidentziasun-mugak dituzten, erabiltzailearentzat, hirugarren pertsonentzat edo zerbitzuak ematen ari denarentzat oso arrisku larria dakarten egoerei dagokienez; baita sekretu profesionala kentzea legez edo judizialki aginduta dagoenean ere.

Informazio hori, ahal den guztietan, harremanaren hasieran eman behar da, baimen informatuaren prozesuan.

47. Artikulua

Agintaritza judizialak sekretu profesionala kentzen duenean eta informazioaren bat ezagutaraztea exijitzen duenean, psikologian dihardutenek kasuan kasuko gairako garrantzitsua dena bakarrik eman behar dute obligazioz, eta beste edozeinen konfidentziasuna gorde behar dute. Irizpide bera aplikatuko da, halaber, erabiltzaile batek idatzizko dokumentuan informazio pertsonalak ezagutzera emateko baimena eman badu.

48. Artikulua

Psikologiako profesionalek ezin erabili izango dute beren lanbidean diharduten bitartean eskuratutako informazioa beren edo hirugarrenen onurarako.

49. Artikulua

Helburu didaktikoak edota zientziaren arloko komunikazio edo dibulgaziokoak dituzten esku-hartze psikologikoak ahoz, inprimatuta, ikus-entzunezkoetan edo bestelakoetan azaltzea, dagokion pertsona, talde edo erakundea identifikatzea ezinezkoa izango den eran egin beharko da. Eta azalpen horietarako erabiliko den bideak subjektua identifikatzeko aukera ematen badu, beharrezkoa izango da alde aurretik hark baimen esplizitua ematea.

50. Artikulua

Psikologiako profesionalek pertsonalki erantzungo dute beren esku-hartzean lortutako datuen erregistro idatzi eta elektronikoen zaintzaz. Datu horiek segurtasun-baldintzetan eta sekretupean gorde beharko dira indarrean dagoen legeriak ezartzen duen denboran.

51. Artikulua

Sekretu profesionalaren betebeharrak iraun egingo dute, nahiz eta bezeroekin eta erabiltzaileekin harremana galdu edota haiek hil edo desagertu, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera.

6. Atala. Publizitateari eta komunikabideei buruzkoa

52. Artikulua

Hedabideetan aholkuak, iruzkinak edo orientabideak ematen dihardutenek, psikologiaren rol profesionalarekin jardunez, arreta handiz jokatu beharko dute beren

adierazpenak ezagutza zientifikoan oinarrituta daudela eta Kode honi egokituta daudela ziurtatzeko.

53. Artikulua

Hedabideen aurrean, beste edozein gizarte-eremutan bezala, psikologiako profesionalak ezin eman dute ebaluatu edo aztertu ez dituzten pertsoneri buruzko abururik edo iritzi profesionalik.

54. Artikulua

Publizitate-kanpainak, kanpaina politikoak eta antzekoak egiteko eta/edo horietan aholku emateko eskatzen zaizkienean zerbitzu psikologikoak, psikologian diharduten pertsonak izango dira egiten dituzten esku-hartzeen eduki eta helburuen erantzule edozein komunikabidetan dela ere (ponentziak, hitzaldiak, sare sozialak, etab.).

55. Artikulua

Psikologiako profesionalak bidezko eskubidea dute eskaintzen dituzten zerbitzuen publizitatea lehia askeko erregimenean egiteko, aplikatzekoa zaien legeriaren arabera.

56. Artikulua

Psikologiako profesionalak –eta, hala badagokio, bera kide den sozietate profesionalak– eskaintzen dituen zerbitzuen publizitateak argi utziko du haren identifikazioa, jarduteko akreditatzen duen titulua, elkargokide-zenbakia eta, hala badagokio, erabilitako lan-teknikak edo arloak, baita indarreko araudiak ezartzen dituen erregistroak ere.

57. Artikulua

Ekar dezakeen erantzukizun penalaren kalterik gabe, deontologia profesionalaren urraketa larria da edozein bitarteko edo baliabide erabiliz –iragarkiak, plakak, IKTak, etab.– batek ez duen titulazio baten jabe gisa agertzea.

Era berean, ezin erabiliko dira errakuntza edo nahastea eragin dezaketen izendapen eta titulu anbiguoak.

58. Artikulua

Psikologiako jarduera profesionaletan aritzeko pseudonimo bat erabiliko bada, Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialari jakinarazi beharko zaio. Erakunde kolegiatu honek dagokion erregistroa ezarri ahal izango du, legetan ezarritakoaren arabera.

59. Artikulua

Psikologoek ez dituzte erabiliko profil gatazkatsua edo psikopatologikoa duten pertsonak hautatzeko zientzia psikologikoaren ezagutzak eta tresnak, hedabide sozialetan erakusteko xedearekin.

7. Atala. Berme prozesalei buruzkoa

60. Artikulua

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialeko Deontologia Batzordea arduratuko da honako

kode hau interpretatzeaz, aplikatzeaz eta eguneratzeaz.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak Etika eta Deontologia Profesionaleko prestakuntza sustatuko du unibertsitate-esparruan.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofizialak ziurtatuko du Kode hau profesional guztien artean zabalduko dela, bai eta gizartean ere.

61. Artikulua

Lanbide honetako jardunean izandako Kode Deontologikoaren ustezko arau-hausteak Deontologia Batzordeak aztertuko ditu, entzunaldiaren, kontraesanaren eta erreserbaren printzipioen arabera, elkargoaren estatutuetan eta aplikagarri den gainerako legerian ezarritako moduan.

62. Artikulua

Honako kode hau onetsi eta elkargoaren adierazpen-hedabideetan argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.